

INFORME ANUAL

URTEKO TXOSTENA

**PLAN DE ACCIÓN DE LA LEY FORAL 14/2015
PARA ACTUAR CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS
MUJERES EN NAVARRA**

**EKINTZA PLANA, EMAKUMEEN KONTRAKO
INDARKERIARI AURRE EGITEKO APIRILAREN
10eko 14/2015 FORU LEGEA GARATZEKO**

2023. urtea

Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Nafarroako Berdintasunerako Institutua

**Gobierno
de Navarra**



**Nafarroako
Gobernua**



AURKIBIDEA

1.	SARRERA	3
1.1.	Xedeak	4
1.2.	Planaren kudeaketa	4
1.2.1.	Berdintasunerako Departamentuarteko Batzordea	4
1.2.2.	Ekintza Planaren Batzorde Teknikoa	5
1.2.3.	Jarraipen eta ebaluaziorako irizpideak eta tresnak	6
2.	EMAITZEN ANALISIA	8
2.1.	Egindako ekintzak.	8
2.2.	Exekuzio maila	13
2.2.1.	2023an programatutako ekintza berriak.	18
2.3.	Aurreikusitako eta betearazitako aurrekontua.	20
2.3.1.	Urteko aurrekontu programatuaren eta betearaziaren bilakaera (2017-2023).	20
2.3.2.	Aurreikusitako eta betearazitako aurrekontua (2023).	21
2.3.4.	Betearazitako aurrekontua, plan sektorialaren arabera	25
2.3.5.	Betearazitako aurrekontuaren analisia, ardatzaren arabera.	26
2.3.6.	2022-2023 urteetan betearazitako aurrekontuaren konparaketa	28
3.	ONDORIOAK	29
4.	ERANSKINA. DEPARTAMENTUKA BETETAKO FITXAK	33
4.1.	Berdintasunerako Plan Sektoriala	35
4.2.	Gizarteratze, Enplegu eta Etxebizitzako Plan Sektoriala	51
4.3.	Hezkuntza Plan Sektoriala.	60
4.4.	Justizia eta Barne Gaietarako Plan Sektoriala	67
4.5.	Osasun Plan Sektoriala	86

1. SARRERA

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeak, aplikazio berme gisa, honako hau ezartzen du: legearen garapen orokorreko ekintza plan bat egitea eta onartzea, eta plan sektorialak egitea eta onartzea, lege horretan ezarritako jarduketa eremu nagusietako ekintzen aurreikuspenean sakontzeko.

Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legearen Ekintza Plana, Foru Legeak ezartzen duen bezala, parte hartzeko eta jendaurrean jartzeko prozeduraren bidez egin zen. Horrek ahalbidetu zuen profesionalak, gizarte eragileak, emakume taldeak eta, oro har, indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko interesa duten pertsona guztiek egoki iritzitako ekarpenak eta iradokizunak egitea. Plana 2016ko azaroaren 23an onartu zen, 6 urterako (2016-2021). Jarraian, planean ezarritako jarraibideetatik abiatuta, Ekintza Plana osatzen duten bost plan sektorialak egin eta onartu zituzten eragindako bost departamentuek, eta horrek plana gauzatzen lagundu zuen. Hauek dira onartutako bost plan sektorialak:

- Hezkuntza
- Osasuna
- Gizarteratzea, Enplegua eta Etxebizitza
- Justizia eta Barne Gaiak
- berdintasuna

Plana 2021ean bukatu bazen ere, prozedurari dagokionean adostu da ekintza plana eguneratu arte metodologia berarekin jarraitzea. 2022an ekintza planaren kanpo ebaluazio bat egin zen, gomendioak jasotzeko eta hobetu beharreko arloak ezagutzeko. Ekintza plan berria egiteko prozesua 2024an hasiko da. Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko araudi berria aintzat hartuko du, eta ezarri diren baliabide berriak kontuan hartuko ditu.

Txosten hau Nafarroako Berdintasunerako Institutuak egin du, emakumeen kontrako indarkeriaren arloan eskumena duten Nafarroako Gobernuko departamentu guztien laguntzarekin (Hezkuntza, Osasuna, Eskubide Sozialak, Lehendakaritza, Berdintasuna, Justizia eta Barne Gaiak), eta 2023ko ekintza planaren betetze mailari eta emaitzei buruzko balorazioa biltzen du.

Garrantzitsua da oroitzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu egitura berria onartu zela 2023-2027 legegintzaldi berria hasi ondotik (172. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2023ko abuztuaren 18koa), eta aldaketak egin direla Indarkeriaren kontrako Ekintza Plana osatzen duten departamentuetan. Lehenago plan sektorial berean jasotzen ziren eskumen batzuk departamentu desberdinetan daude orain. Adibidez, orain Etxebizitza departamentua “Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua”n dago, eta, beraz, “Gizarte eskubideak eta enplegua”tik bereizita dago. Bestalde, Justizia eta Barne Gaiak “Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua” departamentu bakarrean batuta daude berriro. Nolanahi ere, txosten honetan zehar, Nafarroako emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legearen Ekintza Plana onartu zeneko esparrua jarraituko dugu kontuan hartzen. Hartan bost plan sektorial zeuden eta haiek aipatzen jarraituko dugu, kontuan izan gabe egungo legegintzaldian zein departamentutan dauden.

1.1. Xedeak

Txosten honen helburua da 2023rako aurreikusitako jarduketak eta haien emaitzak nola bete diren jakinaraztea.

Txostenak honako hauek jasotzen ditu: aurreikusitako ekintzak eta haien betetze maila, aurreikusitako eta betearazitako aurrekontua, eta balorazio kualitatibo bat, betearazteko izan diren zailtasunak jasotzen dituena.

1.2. Planaren kudeaketa

Planaren kudeaketa eredian deskribatzen den moduan, hauek dira Planaren jarraipenaz arduratzen diren barne eragileak: Nafarroako Berdintasunerako Institutua, Planaren arduradun nagusi eta bultzatzailea; Ekintza Planaren Jarraipenerako Departamentuarteko Batzordea, planaren ezarpenari eta garapenari buruzko erabakiak hartzeko ardura duen organoa; eta Batzorde Teknikoa, erabaki eta koordinazio teknikorako organoa.

1.2.1. Berdintasunerako Departamentuarteko Batzordea

2019an, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea onartu zen. 11. artikuluan, haren osaera eta eginkizunak zehazten dira:

Elkarlanerako, lankidetzarako eta koordinaziorako sektore arteko organo horren xedea da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren politika guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa txertatzea eta emakumeen kontrako indarkeria desagerraraztea. 2017ko apirilaren 12ko Gobernu erabaki bidez sortu zen, eta, bestek beste, funtzio hau du: departamentuarterako plan, programa eta jarduketa ildoak bultzatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria erazteko, eta haien ebaluazioa eta jarraipena egiteko. Beraz, batzorde horri dagokio Planaren jarraipen eta ebaluazio txostenak onartzea, bai eta urteko plangintza onartzea ere. Zuzendaritzen edo zuzendaritza nagusien titular batzuek osatuko dute; hain zuzen, lan esparru estrategikoa dutenek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan txertatzeko. Zehazki, hauek osatuko dute:

- a) Presidente: Nafarroako Gobernuko lehendakaria.
- b) Presidenteordea: genero berdintasunaren arloko eskumenak esleituak dituen Departamentuko titularra.
- c) Batzordekideak: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari Departamentuetako zuzendaritzetako eta gerentzietako titular hauek: berdintasun-printzipioa zeharka txertatzeko ezinbestekoak diren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko osoko jarduketarekin lotuta dauden departamentuetakoak.
- d) Idazkaria: Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Plangintzaren eta Programen Zuzendariordetzaren titularra.

Departamentuarterako Batzordeak bilera bat egin zuen 2023ko apirilaren 27an, eta bertan aurkeztu ziren 2022-2027 aldirako Nafarroako Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoaren jarraipen txostena eta urteko plangintza, eta, horrekin batera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legearen Ekintza Planaren 2022ko jarraipen txostena eta plan horren 2023rako programa.

1.2.2. Ekintza Planaren Batzorde Teknikoa

Erabaki eta koordinazio teknikoko organoa da, eta Plana bultzatzeko eta exekutatzeko funtzioak ditu. Hura eratzeko, departamentu bakoitzak arduradunak izendatu zituen, NABIren gomendioei jarraituz. Haren arabera, pertsona hauek sartu behar zuten Batzordean: dagoeneko emakumeen aurkako indarkeriaren arloan ezarritako jarraipen batzordeen eta lantaldeen kide zirenek, bai eta berdintasun unitateen kide zirenek ere. Guztiek plan horren jarraipena egitea ezarri dute lan helburutzat; era horretan, lan eraginkorragoa eta koordinatuagoa egitea ziurtatzen da.

Plan sektoriala duten departamentuetako arduradunek osatzen dute Batzordea:

- Justiziako Gizarte Zerbitzuko Delituaren Biktimei Arreta emateko Ataleko Zuzendaritzako burua,
- Hezkuntza Departamentuko Berdintasun eta Bizikidetzako Ataleko Zuzendaritzako burua,
- Eskubide Sozialetako Departamentuko Gizarte Inklusiorako eta Gutxiengoei Arreta emateko Ataleko Zuzendaritzako burua,
- Foruzaingoko Ikerketa Kriminalaren Arloko Zuzendaritzako burua,
- Osasun Zuzendaritza Nagusiko Osasun Laguntzaren Eraginkortasun eta Segurtasunerako Zerbitzuko teknikaria,
- NABIko Berdintasunerako Gobernantzako Zuzendariordetzako burua,
- NABIko Emakumeen aurkako Indarkeriaren Ataleko Zuzendaritzako burua,
- eta NABIko Emakumeen aurkako Indarkeriaren Ataleko teknikaria.

Batzorde teknikoak bilera bat egin zuen 2023ko ekainaren 7an, eta Departamentuarteko Batzordeak onartutako 2022ko Ekintza Planaren jarraipen txostenean jasotako datu nagusiak jakinarazi zituen NABIk. Halaber, urteko lehen seihilekoan ekintzen exekuzio maila jakinarazi zuen departamentu bakoitzak, bakoitzari dagokion plan sektorialean. Batzorde teknikoak legegintzaldi honetan (2019-2023) egindako azken bilera izanik, Berdintasunerako Gobernantzako zuzendariordeak haren balantzea aurkeztu zuen. Bertan, talde profesionalak egindako lan guztiaren eta baliabide eta zerbitzu guztien artean egindako koordinazioaren balioa nabarmendu zen.

1.2.3. Jarraipen eta ebaluaziorako irizpideak eta tresnak



Ekintza Planaren eta Plan Sektorialen jarraipena ahalbidetzeko eta urteko jarraipen txostena egiteko, komunikazioak eta trukeak telefonoz, posta elektronikoz eta Batzorde Teknikoaren koordinazio bileren bidez egin dira.

Indarkeriaren kontrako Ekintza Plana exekutatzeari buruzko informazio guztia Gobernu Irekiaren webgunean dago:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gobernantza/planak-eta-programak-gobernu-eraginak/emakumeen-kontrako-indarkeriari-aurre-egiteko>

Txosten honetan Plan Sektorialen jarraipen fitxen analisia egiten da: programatutako ekintza zehatzak; haien exekutatze egoera; exekutatze sortutako zailtasunak; ekintza berriak; aldatutako, baztertutako edo hasi gabeko ekintzak; eta aurreikusitako eta betearazitako aurrekontua.

2. EMAITZEN ANALISIA

2.1. Egindako ekintzak.


Atal honetan sartzen dira, urte hasieran programatutako ekintza guztietatik, 2023ko ekitaldian egindako ekintza guztiak, bukatutako ekintzak eta abian diren ekintzak.

ARDATZAK	ESPARRUA	Ekintzak (egindakoak), plan sektorialaren arabera					Ekintzak, guztira	%
		Berdintasuna	Hezkuntza	Eskubide Sozialak	eta Barne Departamentua	Osasuna		
I: Balioak aldatzea eta baldintzak sortzea emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizimodurako.	Prebentzioa eta sentsibilizazioa	12	16	1	2	0	31	% 18,02
	Ikertu	14	4	3	3	3	27	%15,70
II: Arreta integrala emakumeei eta haien seme-alabei	Detekzioa	0	0	1	0	7	8	% 4,65
	Kaltearen erreparazioa	3	0	0	3	0	6	% 3,49
	Poliziaren jarduera eta Babesa	2	0	0	14	0	16	% 9,30
	Arreta eta oneratzia	12	0	10	3	0	25	% 14,53
	Justizia	2	0	0	5	0	7	% 4,07
III: Lanbide Heziketa	Profesionalak prestatzea	16	0	2	2	3	23	% 13,37
IV: Koordinazioa	Koordinazio instituzionala	18	1	1	9	0	29	% 16,86
TOTALA		79	21	18	41	13	172	% 100,00

2023ko ekitaldian zehar, Ekintza Planean 194 ekintza programatu ziren, eta horietatik 172 gauzatu dira edo aribidean daude.

Honako grafiko hauetan, 2023an gauzaturako ekintzak kuantitatiboki banakatzen dira, Ardatzen, Eremuen eta Departamentuen arabera:


EGINDAKO ETA PROGRAMATUTAKO EKINTZAK, ARDATZAREN ARABERA (2023)



EGINDAKO EKINTZAK, EREMUAREN ARABERA (2023)



EGINDAKO EKINTZAK, PLAN SEKTORIALAREN ARABERA (2023)



Jarduera-ardatzaren araberako analisiak adierazten digu II. ardatzean (*“Emakumeei eta haien seme-alabei arreta integrala”*) egin direla ekintza gehienak: 75 ekintza programatu dira eta haietako 62 exekutatu; hau da, exekutaturako 172 ekintza guztien % 36,05.

Hurrengoa I. ardatza da (*“Baliok aldatzea eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitza baterako baldintzak sortzea”*): 60 ekintza programatu dira eta haietako 58 exekutatu; hau da, exekutaturako ekintza guztien % 33,72.

Ondotik, IV. ardatza dator (*“Koordinazio instituzionala”*): 32 ekintza programatu dira eta haietako 29 exekutatu; hau da, exekutaturako ekintza guztien % 16,86.

Azkenik, III. ardatzean (*“Indarkeria kasuak identifikatzeko eta haiei aurre egiteko profesionalen prestakuntza”*): 27 ekintza programatu dira eta haietako 23 exekutatu; hau da, exekutaturako ekintza guztien % 13,37.

Ekintzak **jarduketa eremuen** arabera banakatzen baditugu, ikusiko dugu **“Prebentzioa eta sentsibilizazioa”** eremuan exekutatu direla ekintza gehien: 32 ekintza programatu dira eta haietatik 31 exekutatu; hau da, exekutaturako ekintza guztien % 18,02. Hurrengoa **“Koordinazio instituzionala”** izeneko eremua da: 32 ekintza programatu dira eta haietatik 29 exekutatu; hau da, exekutaturako ekintza guztien % 16,86. Ondotik, **“Ikerketa”** izeneko eremua dator: 28 ekintza programatu dira eta haietatik 27 exekutatu; hau da, exekutaturako ekintza guztien % 15,70. Hurrengoa **“Arreta eta oneratzeta”** izeneko eremua da: 26 ekintza programatu dira eta haietatik 25 exekutatu; hau da, exekutaturako ekintza guztien % 14,53. Ondotik, **“Profesionalentzako prestakuntza”** izeneko eremua dator: 27 ekintza programatu dira eta haietatik 23 exekutatu; hau da, exekutaturako ekintza guztien % 13,37. Hurrengoa **“Poliziaren jarduna eta babes eraginkorra”** da: 20 ekintza programatu dira eta haietatik 16 exekutatu; hau da, exekutaturako ekintza guztien % 9,30. **“Detekzio fisikoa”** eremuan 12 ekintza programatu dira eta haietatik 8 exekutatu; hau da, exekutaturako ekintza guztien % 4,65. Haren ondotik, **“Justizia”** eremua dator: 11 ekintza programatu dira eta haietatik 7 gauzatu; hau da, exekutaturako ekintza guztien % 4,07. Azkenik, **“Kaltearen erreparazioa”** eremuan 6 ekintza programatu eta exekutatu dira; hau da, exekutaturako ekintza guztien % 3,49.

Ekintzak analizatzean, ikusten da **Berdintasunerako Plan Sektorialekoak** direla ekintza gehienak. Izan ere, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak bultzatutako **Plan Sektorialari** dagokio, besteak beste, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko jarduketa integraleko neurriak koordinatzea eta kudeatzea, eta, beraz, hura da Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Ekintza Planaren bultzatzaile nagusia.

Zehazki, 82 ekintza programatu dira eta haietatik 79 exekutatu; hau da, Plan Sektorialeko ekintza guztien % 45,93.

Berdintasunerako Plan Sektorialean, ekintza gehien exekutatu den eremua *Koordinazio instituzionala* izan da: 18 ekintza exekutatu dira. Hurrengoa *Profesionalentzako prestakuntza* eremua izan da, 16 ekintza exekutatu baitira, eta, hurrengoa, *Ikerketa*, 14 ekintza exekutatu baitira. Ondotik, "*Prebentzioa eta sentsibilizazioa*" eta "*Arreta eta oneratzeta*" eremuak datoz. Bietan, 12 ekintza programatu eta exekutatu dira. "*Kaltearen erreparazioa*" eremuan, programatutako 3 ekintzak exekutatu dira. Ondotik, "*Justizia*" eta "*Poliziaren jarduna eta babes eraginkorra*" eremuak datoz; bi eremu horietan 2 ekintza programatu eta exekutatu dira. "*Detekzioa*" eremuan, berriz, ez da ekintzarik exekutatu.

Hurrengoa **Justizia eta Barne Gaietarako Plan Sektoriala** da exekutatutako ekintzen kopuruari dagokionez. Izan ere, 51 ekintza programatu dira eta 41 exekutatu; hau da, Indarkeriaren kontrako Ekintza Plan honetan programatutako ekintza guztien % 23,84. Plan sektorial honetan Justiziako (Justiziako Gizarte Zerbitzua) eta Barne gaietako (Foruzaingoa) jarduerak sartuta daude.

Hezkuntza Departamentuan programatutako 25 ekintzetatik 21 exekutatu dira; hau da, 2023an exekutatutako ekintza guztien % 12,21.

Gizarte Eskubideen Departamentuak programatutako 18 ekintzak exekutatu ditu; hau da, urtean exekutatutako ekintza guztien % 10,47.

Osasun Departamentuak 18 ekintza programatu eta 13 exekutatu ditu; hau da, ekintza guztien % 7,56.

Taula honetan, departamentu bakoitzak 2017., 2018., 2019., 2020., 2021., 2022. eta 2023. urteetan programatutako ekintzen kopurua alderatuko dugu:

EXEKUTATUTAKO EKINTZAK	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Berdintasuna	55	78	67	80	96	98	82
Eskubide Sozialak	26	25	19	20	19	20	18
eta Barne Departamentua	16	18	23	36	45	36	51
Hezkuntza	14	15	19	16	16	21	25
Osasuna	10	10	13	13	14	21	18
GUZTIRA	121	146	141	165	190	196	194

Ikus daitekeenez, 2023rako 194 ekintza programatu ziren (aurreko urtean baino bi gutxiago). 2021etik 2023ra bitarteko kopuruak ez dira ia aldatu.


Oro har, departamentuek 2022an baino ekintza gutxiago programatu zituzten, salbu eta “Hezkuntza” eta “Justizia eta Barne Gaiak” departamentuek, ekintza gehiago programatu baitzituzten: 4 ekintza gehiago “Hezkuntza”n eta 15 gehiago “Justizia eta Barne Gaiak” departamentuan.

2.2. Exekuzio maila

Plan sektorialetan programatutako **194 ekintzak** aztertzen baditugu, exekuzio maila hau ikusiko dugu 2023a bukatzean:

PLAN SEKTORIALAK	Bukatuak	Aribidean	Hasi gabeak	Baztertuak	TOTALA
Berdintasuna	71	8	3	0	82
Eskubide Sozialak	13	5	0	0	18
Hezkuntza eta Barne Departamentua	16	5	4	0	25
Osasuna	36	5	8	2	51
GUZTIRA	144	28	20	2	194
%	% 74,23	% 14,43	%10,31	% 1,03	%100,00

EKINTZEN EXEKUZIO MAILA (2023)



Datuen taulan eta grafikoan ikusten den bezala, bukatutako ekintzak guztizkoaren % 74,23 dira (144 ekintza); horrek esan nahi du 2022an baino 27 ekintza gehiago bukatu direla.

2023ko ekitaldia ixtean, 28 ekintza izan dira hasi arren bukatu ez direnak; hau da, guztizkoaren % 14,43. Aurreko ekitaldian, berriz, 57 izan ziren (% 29,08). Dagozkien departamentuen plan sektorialetan sartu dira 2023an hasi arren bukatu ez diren ekintza horiek, 2023an exekutatzeko jarraitzeko.

Garrantzitsua da azpimarratzea, plan sektorial guztietan programatutako jarduerak exekutatzeari dagokionez, **programatutako ekintzen % 88,66 bukatu direla edo aribidean daudela**. Proporzio hori aurreko urtekoaren oso antzekoa izan da: programatutako ekintzen % 89 bukatu ziren edo aribidean zeuden urte bukaeran.

Azkenik, 20 izan dira hasi gabeko ekintzak; hau da, % 10,31. 2022an, 10 ekintzakoa izan zen datu hori; hau da, % 5,10ekoa.

Jarraian, plan sektorial bakoitzeko ekintza garrantzitsuenak zerrendatuko ditugu. Plan sektorial bakoitzaren programazio osoak kontsultatu nahi izanez gero, I. ERANSKINERA jotzea gomendatzen da (4. puntua). Bertan, zehatz-mehatz azaltzen dira bost plan sektorialak.



PLAN SEKTORIALETAKO EKINTZA NABARMENAK	
HEZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> • SKOLAE programak aurrera jarraitzea: Nafarroako unibertsitatez kanpoko ikastetxeen % 90 inguru daude programa horretan sartuta. • 2024-2028 Hezkidetza Plana egitea. • Hezkidetzari buruzko web orri espezifiko bat sortzea. • Irakasleentzako prestakuntza espezifikoa eta hezkidetzari buruzko sentsibilizazioa, eskola-klaustro bakoitzeko kide guztientzat. • Familiak beren seme-alaben berdintasunaren ikaskuntzan sartzea. • SKOLAGUN jardunaldiak: “Pornografiaren alternatibak, eskolatik eta familiaratik” (Iruñean, Tuteran eta Bertizen). • Hezkuntzaren eremuan, emakumearen aurkako indarkeria egoeretan jarduteko protokolo bat egin dadin bultzatzea. • Sexu hezkuntzaren gaia lantzen jarraitzea Osasun Publikoaren Institutuarekin, irakasleak gai horretan trebatu ahal izateko. • Profesionalek ikasgeletan sexu hezkuntzari heltzeko berariazko materiala prestatzea.
GIZARTERATZEA, ENPLEGUA ETA ETXEBIZITZA	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta indibidualizatuarekin jarraitzea, indarkeria egoeran dauden emakumeei diagnostiko eta ibilbide pertsonalizatuak egiteko Iturrondo Zentrotik. • 65 urtetik gorako emakumeentzako dirulaguntzak, lan merkatuan sartu ezin izateari aurre egiteko. • NABIren koordinazioa informazio liburuxka bat egiteko, honi buruzkoa: laguntza, enplegu bat lortzeko zailtasuna duten eta indarkeriaren biktima diren emakumeentzat; laguntza hori profesionalen artean zabaltzea. • Etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzea, DaVid programen onuradun diren emakumeei emandako laguntzen bidez. • NABIrekin koordinatzea kanpainetan, hedapenean eta tokiko itunetan.
BARNE GAIK ETA JUSTIZIA	<p>BARNE DEP.:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Foruzaingoak arreta jarri du emakume biktimen arretan eta jarraipenean esku hartzen duten talde guztien barne prestakuntzan.

	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen hilketen kasuetan, polizia azterketako taldean parte hartzea, indarkeria matxistari Estatuan aurre egiten dioten unitateetako arduradun nagusiekin batera. • Sexu-delituetarako Estatuko plan estrategikoan parte hartzea. • NABIrekin koordinatzea, teknologia berrien bidezko indarkeriari buruzko informazio liburuxka eguneratu bat egiteko, ikastetxe eta institutuetan egindako sentsibilizazio jardurekin batera eskaintzeko. • Emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako taldea sortzea Lizarrako Foruzain Etxean. • Nafarroan ari diren gainerako Segurtasun Indar eta Kidegoekin koordinatzea, polizia salaketen datu-basea eguneratzeko. <p>JUSTIZIA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Justizia Departamentuak jarraitzen du Nafarroan Barnahus eredia (arreta integraleko eredia haurren sexu-indarkeriako kasuetan) ezartzeko beharrezkoak diren kudeaketekin; hori dela eta, zerbitzu hori emanen duten langileetan eta horretarako beharrezkoa den lokala egokitzean jarri du arreta. • Delituen Biktimei Laguntzeko Bulegoaren eta NABIren arteko koordinazioa, honako honen gaineko azterketa eta gogoeta egiteko: emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen egiaztapenen egungo egoera.
<p>OSASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sexu-erasoen asistentziari eta detekzio goiztiarrari lehentasuna ematea. • Historia klinikoan emakumeen kontrako indarkeria gertakariak erakusten dituzten datuak biltzea. • Nafarroako Osasun Sistemaren genero-indarkeria garaiz detektatzeko tresna komun estandarizatu bat ezartzea. • 2022ko Foru Aginduaren bidez sortutako Nafarroako Osasun Zerbitzuan "Indarkeriaren biktimei diren emakumeei eta haien seme-alabei arreta integratua emateko lantalde tekniko" bultzatzea. • Sexu-erasoei arreta emateko protokoloa egitea, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren eta Zientzia Forentseen Institutuarekin lankidetzan. • Sexu-indarkeriari buruzko protokoloa egiteko, koordinazioari eta lankidetzari eusten zaie estatuan.

	<ul style="list-style-type: none"> • Indarkeriaren Talde Teknikoa Prestatzea, Irakaskuntza Planaren barruan. • Emakumeen Genitalen Mutilazio Protokoloari buruzko prestakuntzak bultzatzea, Osasuneko langile guztiei, NABIk Munduko Medikuekin duen hitzarmenaren bidez.
<p>BERDINTASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sexu-indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentroa (SIAIZ) diseinatzeko eta abian jartzeko ekintzak. • SIAIZerako, irisgarritasun unibertsaleko plana garatzea. • Nafarroako emakume, nerabe eta neskatoen ezkontza behartuen aurrean koordinatzeko eta jarduteko I. Protokoloa egitea eta aurkeztea. • Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren umezurtzentzako laguntza bat onartzeko jarduerak. • Sentsibilizazio eta prebentzio kanpainak • Ziberindarkeriei buruzko III. Jardunaldiak antolatzea. • Azaroaren 25eko kanpaina instituzionala, harreman sexualak eta afektiboak ezartzeko berariazko baimenari buruzkoa. • Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko ikerketarekin jarraitzea. • Berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza, zenbait arlotako profesionalentzat, teknologia berrien bidezko indarkeriari buruzko prestakuntzan jarrita arreta, bereziki. • NABIren eta Berdintasun Ministerioaren arteko koordinazioa. • Emakumeen aurkako indarkeria dela-eta aritzeko tokiko koordinazio protokoloak bultzatzea eta berrikustea.

2.2.1. 2023an programatutako ekintza berriak.

Lehen adierazi den bezala, hasierako programan aurreikusi gabeko ekintzak gehitu dira hasierako plangintzan eta urtean zehar. Merezki du 2023ko ekitaldian egindako ekintza berriak nabarmentzea; ekintza berri horiek Berdintasun eta Hezkuntza planetan sartu dira.

Berdintasunean, ekintza berri hauek programatu dira:

I. ardatz estrategikoa. Ikerketa.

- ✓ Nafarroako ezkontza behartuak direla-eta Nafarroako Foru Komunitateak duen egoeraren diagnostikoa. Abiapuntutzat du emakumeen kontrako indarkeriaren arloan Nafarroan esku hartzen duten teknikariek errealitate horri buruz duten ezagutza eta esperientzia.
- ✓ Nafarroako ezkontza behartuen I. Protokoloaren aurkezpena.

I. ardatz estrategikoa. Prebentzioa eta sentsibilizazioa.

- ✓ Familia gurasobakar amadunez arduratzen diren emakumeak ahalduntzeko prestakuntza.

II. ardatz estrategikoa. Arreta eta oneratzeara:

- ✓ Adikzioak eta/edo osasun mentaleko arazoak dituzten indarkerien biktima diren emakumeentzako baliabide berri bat abian jartzeko lehenengo kudeaketak.
- ✓ Informazio dokumentu bat egitea eta profesionalari zabaltzea, enplegua lortzeko zailtasunak dituzten emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako laguntzari buruz.

III. ardatza. Profesionalentzako prestakuntza.

- ✓ Lan saioak baliabide espezializatuen eta Segurtasun Indar eta Kidegoen ordezkariekin, Kataluniako Generalitatean ezkontza behartuen arazoari heltzeko egiten diren jardunbide egokiak adierazita.
- ✓ Prestakuntza jardunaldia: “Ezkontza behartuak. Nafarroako Foru Komunitatean gai horri genero ikuspegiz era integralean heltzeko erronka”, ezkontza behartuen aurrean koordinatzeko protokoloa egiten parte hartu zuten profesionalak eta eragileak gaitzera bideratua.
- ✓ Generoaren arloko prestakuntza jardunaldia, eremu judizialean gertatzen den emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzat, Demokraziarako epaileekin lankidetzan.

Hezkuntzan ekintza berri hauek programatu dira:

I. ardatz estrategikoa. Prebentzioa eta sentsibilizazioa.

- ✓ 2024-2028 Hezkidetza Plana egitea.
- ✓ Sexu-hezkuntzari hezkuntza testuingurutik eta familia eremutik heltzeko kontzientzia eta ardura sustatzea.
- ✓ Hezkuntza Bereziko ikastetxeetarako sakontze mintegia berriz diseinatzea.
- ✓ Hezkidetza Nortasunaren Plana haur hezkuntzako (lehen zikloa) ikastetxeetarako egokitzea.
- ✓ Ikastetxeetako Hezkidetza Nortasunaren Planen garapena ahalbidetzeko baliabideak argitaratzea.
- ✓ NUPekin lankidetzan aritzea Genero, Emakume eta Berdintasun Gaietako Unibertsitate Masterrean eta Bigarren Hezkuntzako Masterrean


II. ardatz estrategikoa Profesionalak prestatzea.

- ✓ Hezkuntza arretako espezialistentzako prestakuntza diseinatzea.

2.3. Aurreikusitako eta betearazitako aurrekontua.

2.3.1. Urteko aurrekontu programatuaren eta betearaziaren bilakaera (2017-2023).

URTEKO AURREKONTU PROGRAMATUAREN ETA BETEARAZIAREN BILAKAERA. 2017-2023



2.3.2. Aurreikusitako eta betearazitako aurrekontua (2023).

2023rako programatutako lan plana garatzeko 5.471.846,11 euroko aurrekontua ezarri zen, eta 4.833.012,60 euroko aurrekontua betearazi; hau da, 638.833,51 euroko aldea egon da programatutako aurrekontuaren eta azkenik betearazitakoaren artean.

Jarraian aztertuko ditugun tauletan, departamentuaren eta ardatzaren arabera banakatuta daude datuak.

	BERDINTASUNA		ESKUBIDE SOZIALAK, GIZARTERATZEA, ETXEBIZITZA ETA ENPLEGUA		HEZKUNTZA		JUSTIZIA ETA BARNEKO KONTSEILARIA		OSASUNA	
	AURREKONTUAN JASOTAKOA	GAUZATUA	AURREKONTUAN JASOTAKOA	GAUZATUA	AURREKONTUAN JASOTAKOA	GAUZATUA	AURREKONTUAN JASOTAKOA	GAUZATUA	AURREKONTUAN JASOTAKOA	GAUZATUA
I. ARDATZA	647.380,00	486.463,92	0	0	110.000	110.000	0	0	0	0
II. ARDATZA	3.222.804,11	2.119.547,55	844.662,00	1.158.472,14	0	0	500.000	850.000	0	1.825,00
III. ARDATZA	42.000,00	31.661,66	0	0	0	0	0	0	0	0
IV. ARDATZA	105.000,00	75.042,33	0	0	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	4.017.184,11	2.712.715,46	844.662,00	1.158.472,14	110.000,00	110.000,00	500.000	850.000	0	1.825,00

AURREKONTUA 2023				
	PROGRAMATUA	GUZTIZKOAREN EHUNEKOA	GAUZATUA	GUZTIZKOAREN EHUNEKOA
I. ARDATZA	757.380,00	% 13,84	596.463,92	% 12,34
II. ARDATZA	4.567.466,11	% 83,47	4.129.844,69	% 85,45
III. ARDATZA	42.000,00	%0,77	31.661,66	% 0,66
IV. ARDATZA	105.000,00	% 1,92	75.042,33	%1,55
GUZTIRA	5.471.846,11	% 100	4.833.012,60	% 100

Informazio hori behar bezala analizatzeko, garrantzitsua da honako hau nabarmentzea:

- ✓ Aurreko urteetan bezala doitu da Hezkuntzako Sektore Planaren aurrekontua. Hau da, Plan horretan ez da Skolae Programaren guztizko kostua kontuan hartu, haren % 25 baizik (110.000 €), programaren indarkeriaren arloko edukiei erreferentzia egiteko. 2023ko Gizarte Eskubideen Plan Sektorialean, aurreko urteetan bezala, 65 urtetik gorako emakumeentzako laguntza ekonomikoak sartzen dira. Arlo horretan 145.962,92 euroko aurrekontua betearazi da, eta aurreikuspena 125.000,00 eurokoa zen. Gainera, DaVid eta EmanZipa programen barruan, nabarmen handitu dira indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzak: 358.705,68 euro bideratu dira, aurreikusitako 75.000 euroen aldean.
- ✓ Justizia eta Barne Gaietako Plan Sektorialean 500.000,00 euroko aurrekontua kalkulatu zen hasieran, eta, azkenik, 850.000,00 euroko aurrekontua erabili da, Justiziatik 300.000,00 euro bideratu baitira biktimei zuzendutako programetara.

2.3.3. Plan sektorialetan 2023an aurreikusitako eta exekutatutako aurrekontuen arteko aldea.

Informazio hori plan sektorialen arabera aztertzen badugu, honako hau ikusiko dugu:

- ✓ **Berdintasunerako Plan Sektorialean** 1.304.468,65 euroko aldakuntza ikusten da aurreikusitako eta exekutatutako zenbatekoen artean: **4.017.184,11 euro** programatu ziren hasieran, eta **2.712.715,46 euro** exekutatu dira azkenik. Aurreikusitakoaren eta exekutatutakoaren arteko alderik handiena II. ardatzean dago (hasieran aurreikusitakoa baino 1.103.256,56 euro gutxiago gastatu dira). Ekintza horietan aurreikusitakoa baino zenbateko txikiagoa exekutatu da:

II. ardatz estrategikoa. Arreta eta oneratzeara:

A.2.3 “NABIk kudeatutako indarkeriaren arloko Nafarroako Gobernuren arreta-baliabideak”. 411.954,31 euroko aldea dago aurrekontuan jasotakoaren eta exekutatutakoaren artean. Izan ere, 2023ko otsailaren 8an Gizain Fundazioari BAIT Eskualdea baliabidea enkargatzeko lizitazio baten kudeaketa-eredua aldatu zen, eta, horren ondorioz, Eskubide Sozialetako Departamentuak finantzatu zuen 2023ko otsailaren 28tik aurrera.

A.2.4 “Itxaropen Gunerekin sinatutako lankidetzaz hitzarmena, prostituzioko eta/edo sexu-esplotaziorako emakume salerosketako testuinguruetan emakumeei harrera egiteko baliabideak kudeatzeko”. 15.000 euroko aldea dago aurrekontuan jasotakoaren eta exekutatuak diren artean. Izan ere, emantzipazio etxebizitza bat irekitzea planifikatu zen arren, emakume horiek oneratzeko prozesuaren barruan, azkenean ezin izan da aurrera eramana.

A.2.20 “Sexu-indarkerien arretarako zentroa abian jartzeko jarduerak” ekintzan 632.096,14 euroko aldea dago aurrekontuan jasotakoaren eta exekutatuak diren artean. Horren arrazoia da hasiera batean 2023ko abendura arteko epea zegoela proiektu horretara bideratutako funtsak exekutatzeke, baina, azkenean, 2024ko abendura arte luzatu dela epea. Beraz, saldo hori 2024an exekutatzea aurreikusita dago. Ildo beretik doa SIAI Zerako irisgarritasun plana: aurreikusitako guztizkotik 4.284 euro 2024an betearaziko dira.

II. ardatz estrategikoa. Kaltearen erreparazioa:

A.2.2 “Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioz hildako emakumeen umezurtzentzako kaltea erreparatzeko laguntza ekonomikoa” ekintzarako 40.000 euroko gastua programatu zen. Funts horiek ez dira betearazi, ez baita horri buruzko araudia egiten bukatu. Laguntza hori arautuko duen foru dekretua egiteko izapideari ekin zaio, eta, beraz, lanei eutsiko zaie hura onartu arte.

IV. ardatz estrategikoa. Koordinazioa:

A.8.1 “Indarkeria plan berria egitea”, 18.000 euroko gastuarekin programatua, 2024ra arte ez da betearazten hasiko.

Nabarmendu behar da 2023an legegintzaldia aldatuta zuzendaritza talde berri bat sartu dela NABIn. Horrek trantsizioaldi bat eskatzen du helburuak, jomugak eta lan ildoak berrikusteko eta doitzeko.

- ✓ **Gizarteratze, Enplegu eta Etxebizitzako Plan Sektorialean 1.158.472,14 euro** betearazi ziren, eta **844.662,00 euro** ziren aurrekontuan jasotakoak. A.4.7 “Etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortzea” ekintzan, alde handia dago aurrekontuan jasotako 75.000 euroen eta benetan betearazitako

358.705,68 euroen artean. Ekintza horretan EmanZipa eta DaVid programak sartzen dira. Haien artean, 158 emakumek hartu dute parte DaVid programan, eta 6k EmanZipan. 65 urtetik gorakoei emandako dirulaguntzak 145.962,92 eurokoak izan dira, aurreikusitako 125.000,00 euroen aldean. Beraz, aldakuntza 20.962,92 eurokoa izan da; betearazitakoa hobeki egokitu da aurrekontura aurreko urtean baino. 65 urtetik gorakoentzako laguntza ekonomikoen ehunekoak egotea, datu hau erabili da: Indarkeriaren Makroinkestaren (2019) arabera 65 urtetik gorako emakumeen % 2,5ek jasaten dute genero-indarkeria. Halaber, zenbait ekintzatan aldeak daude aurreikusitako eta betearazitako aurrekontuen artean, baina konpentsatu egiten dira azkenean.

- ✓ **Justizia eta Barne Gaietako Plan Sektorialak 500.000 euroko** aurrekontua egin zuen, baina azkenean **850.000 euro** betearazi dira. Hasierako aurrekontuan ez zen jaso delituaren biktimei laguntzeko erabiliko zen partida. Justizian biktimei zuzendutako programetara bideratutako azken aurrekontua 300.000 eurokoa izan da, eta, gizon erasotzaileei arreta psikologikoa bermatzeko aurrekontu eta baliabide zuzkidura, 550.000 eurokoa.
- ✓ **Hezkuntzako Planak** programatutako zenbatekoa betearazi du: **110.000 euro**.
- ✓ Azkenik, adierazi behar da **Osasun Planean** programatutako ekintzek ez zutela aurrekonturik hasieran, baina azkenean **1.825,00 euro** betearazi direla.

2.3.4. Betearazitako aurrekontua, plan sektorialaren arabera

Kontuan izan behar da aurrekonturik handiena **Berdintasunerako Plan Sektorialak** duela. Izan ere, plan horren barruan, indarkeria egoeran dauden emakumeentzako zerbitzu eta baliabide espezifikoak kudeaketa sartzen da, hala nola harrera baliabideak eta salerosketaren biktimei diren edo prostituzio testuinguruetan dauden emakumeentzako baliabideak. Bi horiek Nafarroako Berdintasunerako Institutuak kudeatzen ditu, bai eta Sexu-indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentro (SIAIZ) berriak ere. Gainera, esan behar da NABIk gidatzen eta bultzatzen duela emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko ekintza lana, eta, ondorioz, egindako ekintzen % 45,93 egiten ditu.

Bigarren aurrekonturik handiena **Eskubide Sozialen Plan Sektorialak** du. Plan horrek laguntza ekonomikoen zati handi bat 65 urtetik gorako emakumeei esleitzen die, genero-indarkeriaren biktimei etxebizitza babestua adjudikatzen zaiela bermatzeko

(batez ere DaVid eta EmanZipa programen bidez), etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzeari buruzko foru araudiak ezartzen duen bezala.

Justizia eta Barne Gaietako Plan Sektoriala da hirugarren. Hauek hartzen ditu: biktimei eta erasotzaileei arreta emateko programak –Biktimen Arretarako Bulegoak kudeatuak– eta segurtasunaren arloko ekintzak. Haren atzetik, aurrekontu txikiagoarekin, **Hezkuntzako Plan Sektoriala** eta **Osasuneko Plan Sektoriala** datoz.

Planaren aurrekontua aztertzerakoan, garrantzitsua da kontuan izatea ekintza batzuek ez dutela aurrekonturik esleituta, departamentuko bertako langileekin egiten baitira.

Aurreko urteetan egin den bezala, aurrekontuak egiteko irizpidea da departamentuetako langileen gasturik ez sartzea. Baina horrek ez du esan nahi horren kosturik ez dagoenik (kontuan hartu behar dira profesionalen soldataren kostu ekonomiko proportzionala, horretan sartutako denbora eta proiektu anitzek aurrera ateratzeko eskatzen duten ahalegin handia).

2.3.5. Betearazitako aurrekontuaren analisia, ardatzaren arabera.

Betearazitako aurrekontuaren ehuneko handiena II. ardatzari dagokio (“Emakumeentzako eta haien seme-alabentzako arreta integrala”). Ardatz hori emakumeen arreta integralaz arduratzen da (detekzioa, kaltearen erreparazioa, poliziaren jarduna eta babesa, arreta eta oneratzea, eta justizia). Horren ondotik, I. ardatza dago (“Balioen aldaketa eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza baterako baldintzak sortzea”). Sentsibilizazioaz, prebentzioaz eta ikerketaz arduratzen da.

Horrek guztiak lotura du gure erkidegoan indarkeria egoeran dauden emakumeei arreta emateko dauden baliabideen kostuarekin.

I. ardatzean 757.380,00 euroko aurrekontua egin zen eta 596.463,92 euro betearazi; hau da, aurreikusitakoa baino 160.916,08 euro gutxiago gastatu ziren, eta, beraz, aurrekontuan jasotakoa baino % 21,25 gutxiago.

II. ardatzean 4.567.466,11 euroko aurrekontua egin zen 2023ko hasieran eta 4.129.844,69 euro betearazi; hau da, aurreikusitakoa baino 437.621,42 euro gutxiago gastatu ziren, eta, beraz, aurrekontuan jasotakoa baino % 9,58 gutxiago.


III. ardatzean 42.000,00 euroko aurrekontua egin zen eta 31.661,66 euro betearazi; hau da, aurreikusitakoa baino 10.338,34 euro gutxiago gastatu ziren, eta, beraz, aurrekontuan jasotakoa baino % 28,53 gutxiago.

IV. ardatzean 105.000 euroko aurrekontua egin zen eta 75.042,33 euro betearazi; hau da, aurreikusitakoa baino 29.957,67 euro gutxiago gastatu ziren, eta, beraz, aurrekontuan jasotakoa baino % 28,53 gutxiago.

Ikusten denez, ardatz guztietan betearazitako aurrekontua txikiagoa izan da hasieran aurreikusitakoa baino.

2023an betearazitako aurrekontua hasierako aurrekontuan aurreikusitakoaren % 88,3 da.

BETEARAZIA, ARDATZAREN ARABERA (2023)



2.3.6. 2022-2023 urteetan betearazitako aurrekontuaren konparaketa

2023. urtean 4.833.012,60 euro betearazi dira; hau da, 2022koa baino kantitate aski handiagoa.

	2022/2023 URTEETAKO AURREKONTUAREN KONPARAKETA		
	BETEARAZIA (2022)	BETEARAZIA (2023)	2022/2023 ALDAKETA EHUNekoETAN
I. ARDATZA	704.118,99	596.463,92	-% 15,29
II. ARDATZA	2.919.159,16	4.129.844,69	% 41,47
III. ARDATZA	23.913,80	31.661,66	%32,40
IV. ARDATZA	45.772,22	75.042,33	% 63,95
TOTALA	3.692.964,17	4.833.012,60	% 30,87

3. ONDORIOAK

Ekintza Plana 2016ko amaieran onartu eta abiarazi zen, eta 2016-2021 aldia hartzen zuen. Lehen adierazi den bezala, prozeduraren aldetik metodologia berari jarraitzea adostu da, 2022ko kanpo ebaluazioan proposatutako emaitzak eta hobekuntzak Ekintza Plan berrian sartzeko zain. Plan hori egiteko prozedura 2024an egiten hastea aurreikusita dago.

2023an 194 ekintza programatu dira, 2022an baino 2 ekintza gutxiago. Programatutako ekintzetatik 172 exekutatu dira; haietatik 144 amaituta daude eta 28 aribidean daude.

NABItik nabarmendu nahi dugu 2023an legegintzaldia aldatu zela, eta, horren ondorioz, zuzendaritza talde berri bat sartu dela NABIn, eta, gainera, langile aldaketak gertatu direla zenbait departamentu eta egituratan.

Berdintasuna: 2024ko hasieran SIAIZ abiarazteko lanarekin jarraitu da 2023an.

I. ardatzean (Ikerketa), nabarmendu behar da *Mentoria, indarkeriatik bizirik atera diren emakumeentzako arreta eta laguntza tresna* azterlana aurkeztu dela 2023an. Horren bidez, jardunbide egokiak eskaini nahi dira indarkeriatik bizirik atera diren emakumeak hobeki oneratu daitezzen.

Ezkontza behartuen Protokoloa egitearekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko egoeraren diagnostikoa egin da.

Gainera, Nafarroako emakumeen, nerabeen eta neskatuen ezkontza behartuen aurrean koordinatzeko eta jarduteko I. Protokoloa aurkeztu du NABIk.

2023an, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko tresna gisa, emakumeak ahalduntzeko tokiko erakundeen programak babesten jarraitu da. Horretarako, tokiko erakundeei, tokiko ekintzako taldeei eta elkarteei emandako dirulaguntzak erabili dira.

I. ardatzean (Prebentzioa eta sentsibilizazioa), zenbait kanpaina egin dira: jaiak, martxoaren 8a eta azaroaren 25a. Martxoaren 8ko kanpainaren leloa “Zuregatik. Guztiengatik” izan zen. Kanpaina horrek feminismoa aldarrikatzen du berdintasunezko gizarte jasangarri eta demokratiko baterantz aurrera egiten jarraitzeko modu bakar gisa.

Gainera, horren bidez azpimarratzen da feminismoari esker aurrerantz egiten jarraitzen dugula.

“Nafarroa jaia da. Erasotzaileak Stop” jaietako kanpainan, zuzenean erasotzaileei egiten zaie dei, Nafarroan jarrera matxistek lekurik ez dutela eta gure bestetan erasotzaileentzako lekurik ez dagoela jakinarazteko.

Azaroaren 25eko “Sexu-indarkeriak; gertatzen ari dira” kanpainaren helburua izan zen sexu-indarkeriak ikusgai jartzea. Gizonen erantzukizunean jarri zuen arreta; izan ere, gehienetan haiek dira sexu-indarkeria erabiltzen dutenak.

Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin lankidetzan, “Sexualitatean, ez geratu zalantzan” kanpaina jarri da abian. Haren helburua da hezkuntza afektibo-sexualaren arloan gazteei arreta ematen dieten baliabideak eta zerbitzu publikoak ezagutzera ematea eta haien erabilera sustatzea.

Ardatz horren barruan, ahalduntze programak lantzen jarraitu da, honako hauei zuzenduak: Nafarroako toki erakundeetako emakume politikariak, Nafarroako Berdintasun Kontseilua, emakumeen elkarteak eta kolektibo feministak.

Emakume politikarien foroan, “Emakumeak erakunde publikoetan: herritarren erdiak ordezkatzu” programa garatu zen. Emakume hautetsiekin landu zen programa hori eta Foru Komunitateko 5 eremutan ezarri zen, horrela toki entitateetan emakume politikarien parte-hartze eta solaskidetza handiagoa lortzeko.

Nosotras-EmakumeON ahalduntze feministako programaren bidez, elkarteak monitorizatu ziren Nafarroako emakumeen errealitatea ikertzeko eta ezagutzeko – elkarteetan nahiz gizartean parte hartzeari dagokionez–, horri esker parte-hartze horiek hobetzeko eta hazteko alternatibak eta bideak proposatu ahal izateko.

“ADIN-EDERRA: Adineko emakumeen ahalduntzea” programa Atarrabian egin zen. Udalerrri horretako adineko emakumeen ahalduntzea eta indarkeriaren prebentzioa landu ziren.

Indarkeria matxista prebenitzeko IGUALA programa izen honen pean egin zen: “Berdintasunaren aldeko eta indarkeria sexistaren aurkako belaunaldia”. 2023an

Lekarozen egin zen –aurreko edizioetan izena eman zuten gazteek parte hartuta–, eta Corellan.

II. ardatzean (Arreta eta oneratzea), desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan jarraitu da lanean, eta, horrela, SIAIZen Irisgarritasun Plana osatu da.

Ardatz horretan bertan, honako ekintza hauek nabarmendu nahi ditugu:

- ✓ NABIk hitzarmenen bidez bultzatzen laguntzen duen ahalduntze lana. Zehazki, emakumeen genitalen mutilazioaren aurka Munduko Medikuekin sinatutako hitzarmenaren bidez. Hitzarmen horretan, emakumeekin egindako jarduketak sartzen dira, haien ahalduntze prozesuari laguntzeko, bai eta gizonekin egindakoak ere, kultura-imaginario sexista batzuk ezabatzeko. Ildo beretik garatu da Emakumeen Salerosketaren aurkako Ekintzarekin egindako hitzarmena: “Bizirik atera diren emakumeak: prozesu pertsonaletik eraldaketa sozialera”.
- ✓ SIAIZ abiarazteko ekintzak. Urtearen 365 egunetan 24 orduz dago zabalik SIAIZ baliabidea, Nafarroako sexu-indarkerien biktima eta bizirauleentzat.
- ✓ Sexu-indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentrorako garatutako Irisgarritasun Unibertsaleko Plana.
- ✓ Nafarroako emakumeen, nerabeen eta neskatoen ezkontza behartuen aurrean koordinatzeko eta jarduteko I. protokoloaren aurkezpena.

III. ardatzean (Profesionalen prestakuntza): NABIk arreta berezia eskaintzen dio profesionalen prestakuntzari.

2023an, NABiko Emakumeen aurkako Indarkeriaren Atalak prestakuntza ematen jarraitu du Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan (NSLE), Hezitzaileen Eskolan, Ijitoen Komunitatearen Osasuna Sustatzeko Programaren sustatzaileen taldean eta Osasun Mentaleko Sareko profesionalen taldean.

Delitu informatikoei eta segurtasun digitalari buruzko 2 saio antolatu dira emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta ematen espezializatuta dauden taldeentzat. Saio horiek Foruzaingoak eman ditu.

Demokraziarako Epailleekin lankidetzan, “Genero Ikuspegia eta Justizia Penala” prestakuntza espezifikoa eman da. Horren bidez, Nafarroako epaitegien eta auzitegien eguneroko praxia hurbildu egin da beste lurralde batzuetako kidego edo zerbitzu profesional zehatz bakoitzaren barruan garatzen diren jardunbide egokietara. Parte hartu zuten hizlariak genero ikuspegiko epaitzean espezializatuta zeuden, eta jurisprudentziaren azken interpretazioei buruzko ezagutzak zituzten.

Ezkontza behartuen Protokoloaren barruan, prestakuntzako jardunaldi bat egin zen protokolo hori egiten parte hartzen zuten profesional eta eragileentzat, eta emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako beste autonomia erkidego batzuetan egiten ari diren beste esku-hartze esperientzia batzuk eman ziren ezagutzera.

IV. ardatzean (Koordinazio instituzionala), adierazi behar da ezen, baliabideekin, zerbitzuekin eta foru erakundeekin erkidego mailan egindako koordinazioez gain, harreman estua izan dela Genero-indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzarekin eta Berdintasun Ministerioko Estatuko Idazkaritzarekin. Hala, bilerak egin dira aldizka, esparru honen barruan: “Indarkeria sexistari aurre egiteko Estatuko Estrategia 2022-2025” eta “Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko urte anitzeko plan bateratua (2023-2027)” esparruan. Plan horrek emakumeen aurkako indarkeriaren arloko politiken eta zerbitzuen gutxieneko erreferentziako katalogo bat barne hartzen du. Nabarmen areagotu da Berdintasun Ministerioarekiko koordinazioa.

Hezkuntza: Departamentua 2017-2018 ikasturtean hasi zen Skolae ezartzen. 2023an, programa hori bultzatzen jarraitu du unibertsitatez kanpoko Nafarroako ikastetxeetan, eta hezkidetzaren arloko eraldaketa sendotu du 2024-2028 Hezkidetzeta Plana onartuta. Plan horren helburua da unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemaren etapa guztietan berdintasunean bizitzen ikasteko gaitasuna ikastea. Ildo beretik, prestakuntza espezifikoa egin du, irakasleentzat, eta hezkidetzaren arloan sentsibilizatzeko prestakuntza, eskola klaustroetako kide guztientzat.

Eskubide sozialak: lanera bideratzeko eta gizarteratzeko programak egin dira emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeentzat. Gainera, Iturrondo Zentrotik, banakako arretarako proiektuak egin dira; horretarako, diagnostikoak eta ibilbide pertsonalizatuak egin dira, indarkeria egoeran dauden emakumeentzat. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzea ahalbidetu da, DaVid eta EmanZipa

programen onuradun diren indarkeriaren biktima diren emakumeei emandako laguntzen bidez.

Osasuna: Osasun Departamentuan tresna komun estandarizatu bat ezarri da Nafarroako Osasun Sistemari genero-indarkeria garaiz detektatzeko, eta, gainera, emakumeen aurkako indarkeria gertakariak erakusten dituzten datuak bildu dira historia klinikoan. Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren eta Zientzia Forentseen Institutuarekin lankidetzan, sexu-erasoetan laguntza emateko protokolo bat egin da.

Justizia eta Barne Gaiak: Justizia Departamentuak Nafarroan Barnahus eredu (arreta integraleko eredu haurren sexu-indarkeriako kasuetan) ezartzeko beharrezkoa den kudeaketekin jarraitu du, eta horretarako beharrezkoa den lokala egokitzen jarri du arreta.

Foruzainak laguntzen jarraitu du emakume biktimen arretan eta jarraipenean esku hartzen duten lantalde guztien barne prestakuntzan. Emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako talde bat sortu du Lizarrako Foruzain Etxean. Estatu mailan, emakumeen hilketen kasuetarako polizia-analisen taldean parte hartu du –estatu mailan indarkeria matxistari aurre egiten dioten unitateetako arduradun nagusiekin batera–, eta, era berean, estatu mailako sexu-delituetarako plan estrategikoa egiten parte hartu du.

Nabarmendu nahi dugu, halaber, departamentu guztiek **sarean egiten duten lana**. Izan ere, edozein toki erakundeek haien parte-hartzea eskatu duenean, prebentziorako eta indarkeria egoeran dauden emakumeei arreta emateko tokiko protokoloak egiten parte hartu dute.

Era berean, azpimarratu behar da departamentuek, baliabideek eta erakundeek eman duten laguntza eta koordinazioa, hala eskatu zaienean; bereziki, Sexu-indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentro berria irekitzeari begira eta Nafarroako emakume, nerabe eta neskatuen ezkontza behartuen aurrean koordinatzeko eta jarduteko protokoloa egiteko prozesuan.

4. ERANSKINA. Departamentuka betetako fitxak

1. eranskinean, plan sektorial bakoitzaren programak aurkezten dira. Bertan, 2023an programatutako ekintza motak eta haien exekuzio maila ikusten dira, bai eta esleitutako aurrekontua ere, ardatzaren arabera.

4.1.

BERDINTASUNERAKO PLAN SEKTORIALA

Berdintasunerako Plan Sektoriala 2023 URTEA									
I. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BALIOAK ALDATZEA ETA BALDINTZAK SORTZEA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZIMODURAKO. ESPARRUA: IKERKETA.									
NEURRIAK ETA EKINTZAK	EKINTZAK, ZEHAZTUTA	ADIERAZLEAK	EXEKUZIO MAILA					AURREIKUSITAKO AURREKONTUA	BETEARAZITAKO AURREKONTUA
			ARIBIDEAN	BUKATUA	HASI GABEA	ALDATUA	BAZTERTUA		
1. NEURRIA: Ikerkuntza eta haren hedapena bultzatzea eta laguntzea.									
A.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikerlanak egitea.	A.1.2. Nafarroan hausnarketa programen bidez egindako ikerketen emaitzak aurkeztea.	Ikerketaren aurkezpena		X					
	A.1.13. PILOTATZEA (ALDATUA). Ezkontza behartuen protokoloari buruzko esperientzia pilotua.			X		X		7.080,00	7.054,30
A.2. Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko informazioaren komunikazioa.	A.2.1 Nafarroako Gobernuaren webguneak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan jasotzen duen informazioa aldi behin berrikustea eta eguneratzea (www.nafarroa.eus).	Berrikuspen ebidentziak eta eguneratzea.		X					
	A.2.2. Hilero, Berdintasunerako Nafarroako Institutuaren webgunearen bidez, polizia kidegoek emakumeen aurkako indarkeriagatik jasotzen dituzten salaketak hedatzea.	Hedapen kopurua		X					

<p>A.3. Informazioa komunikatzeko irizpideak ezartzea.</p>	<p>A.3.1 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa xede-talde guztietara (adineko emakumeak, emakume gazteak, emakume gorrak, beste kultura batzuetatik datozen emakumeak, herritarrek, etab.) iristeko bide egokienak identifikatzea.</p> <p>- Desgaitasunaren arloan lan egiten duten erakundeekin lan egitea. Koordinazio eta komunikazio bideak ezartzea.</p> <p>Sentsibilizazio kanpainetan prentsa idatzia, irratia, zinema, sare sozialak eta abar erabiltzea.</p>	<p>Egindako jarduketan eta kanpainen kopurua</p>		<p>X</p>					
<p>2. N. Informazio bilketa emakumeen aurkako indarkeriaren errealitatera egokitzea, sistematizatzea.</p>									
<p>A1. Informazioa era homogeneoan biltzeko irizpideak egitea.</p>	<p>A.1.1 Informazioa biltzeko tresnak arau esparru berrira egokitzea, horrela Erakunde arteko Akordioaren jarraipenaren urteko txostena 14/2015 Foru Legea egokitzeke.</p>	<p>Tresna egokitzea, tokiko erakundeekin, genero-indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeekin eta etxebizitza departamentuarekin batean.</p>	<p>X</p>				<p>18.000,00</p>	<p>0</p>	
	<p>A.1.2. Polizia kidegoetan informazioa jasotzeko, prozesatzeko eta informazioa analizatzeko sistemak hobetzea.</p>	<p>Egindako hobekuntzak</p>	<p>X</p>						

A.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren analisisan ikuspegi interseksionala sartzea.	A.2.1 Erakunde arteko Akordioaren jarraipenari buruzko urteko txostenerako informazioa biltzeko tresnak berrikustea eta eguneratzea, sektore arteko ikuspegiarekin	Tresnak eguneratuta Aldagaia erantsita		X					
A.3. Emakumeen aurkako indarkeria kasuen erregistroa.	A.3.1 Datu pertsonalak biltegitratzeko/kontserbatzeko prozedura eguneratzea, Datuak Babesteko Legera egokituta. Harrera baliabideen erabiltzaileentzako espediente elektronikoa abiaraztea.	Prozedura eguneratuta Espediente elektronikoa ezarrita		X					
A.5. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen eta zerbitzuen mapa egitea.	A.5.1 Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko baliabideen eta laguntzen mapa webgunean eguneratzen jarraitzea.	Mapa eguneratuta		X					
	A.5.2. Galdetegiak ezartzea, erabiltzaileen gogobetetasuna neurtzeko, NABirekin eta/edo Nafarroako Gobernuarekin kudeatutako eta/edo hitzartutako baliabideei buruz. (BAIT, OAVD eta Foruzaingoa).	Galdetegiak ezarrita Betetako galdetegi kopurua		X					
	A.5.3. BAITei, harrera baliabideei eta OGZe, dirulaguntzei eta baliabideei buruzko informazioa zabaltzea askotariko kanalen bidez.	Egindako ekintzen kopurua, baliabideen arabera		X					

3. N. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko aplikatutako neurrien eraginkortasuna eta inpaktua ebaluatzea.									
A.1. Baliabideak eta zerbitzuak ebaluatzea, eta erabiltzaileen gogobetetze mailaren jarraipena egitea.	A.1.1. Harrera baliabideen erabiltzaileen gogobetetzea kontrolatzea	Galdetegiak analizatuta		X					
	A.1.3. Salerosketaren biktima diren edo prostituzio testuinguruetan dauden emakumeentzako baliabideen erabiltzaileen gogobetetzea kontrolatzea	Balorazioa eginda		X					
I. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BALIOAK ALDATZEA ETA BALDINTZAK SORTZEA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZIMODURAKO. ESPARRUA: PREBENTZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA.									
NEURRIAK ETA EKINTZAK	EKINTZAK, ZEHAZTUTA	ADIERAZLEAK	EXEKUZIO MAILA					AURREIKUSITAKO AURREKONTUA	BETEARAZITAKO AURREKONTUA
			HASIA	BUKATUA	HASI GABEA	ALDATUA	BAZTERTUA		
2. N. Emakumeak haur direnetik ahalduzko laguntza.									
A.1. Emakumeak ikusgai egitea eta estereotipoak ezabatzea.	A.1.1. Emakumeak ahalduzko laguntza, Nafarroako toki erakundeetatik, dirulaguntza publikoen deialdien esparruan. (eskolak sortzeko laguntza barne hartzen du)	NABiren finantzaketa eta aholkularitza duen programa kopurua		X				199.850,00	165.669,40



A.1.2. Emakumeen elkar-teetako ahal-duntze programei eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruzko programei laguntzea	NABIk diruz lagundutako programa kopurua Dirulaguntzen deialdietara proiektuak aurkeztu dituzten elkarten kopurua		X				45.000,00	59.614,41
A.1.3. "Gazteen indarkeriaren prebentzioa" programaren bultzada eta garapena	Egindako jarduketa kopurua		X				18.150,00	17.303,00
A.1.4. Emakumeen parte-hartze sozial eta politikorako estrategia bultzatzea eta garatzea. Estrategiaren hiru jarduera ildoak bultzatzea. Estrategiaren helburu nagusia da oraindik irauten duten genero baldintzatzaileak gainditzea: Emakume politikarien foroa, Nosotras-EmakumeON programa eta Nafarroako Berdintasuneko Kontseilua osatzea.	Egindako jarduketa kopurua Parte-hartzaileen kopurua		X				54.450,00	39.041,38
A.1.6 Tokiko ekintza taldeek emakumeak ahal-duntzeko programak babestea.	NABIren finantzaketa eta aholkularitza duen programa kopurua		X				25.550,00	22.585,93
A.1.7 ADIN-EDERRA programa: Adineko emakumeen ahal-duntzea.	Egindako jarduketan kopurua		X				18.150,00	15.000,00



	ALDATUA A.1.8 "Emakume liderren prestakuntza. Emakume migratzaileen foroa"	Egindako jarduketak kopurua		X		X		18.150,00	8.320,00
--	--	-----------------------------	--	---	--	---	--	-----------	----------

II. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ARRETA INTEGRALA EMAKUMEEI ETA HAIEN SEME-ALABEI. ESPARRUA: POLIZIAREN ARRETA ETA BABES ERAGINKORRA.									
NEURRIAK ETA EKINTZAK	EKINTZAK, ZEHAZTUTA	ADIERAZLEAK	EXEKUZIO MAILA					AURREIKUSITAKO AURREKONTUA	BETEARAZITAKO AURREKONTUA
			HASIA	BUKATUA	HASI GABEA	ALDATUA	BAZTERTUA		
2. N. Polizia ikerketa.									
A1. Informazioa elkartrukatzeko mekanismoak bultzatzea eta sendotzea	A.1.1. Koordinazioa, arau-hauste penal bat gertatzen denean informatzeko eta komunikatzeko, 14/2015 Legeak jasotzen duen bezala. - III. akordioaren esparruan sortutako taldearen jarraipena (Audientziaren batzordea).	Egindako ekintza kopurua.		X					
	A.1.2. Arau hauste penalen kasuetan, erakundeen arteko elkarriketa bakarra eta homogeneoa izan dadin, Nafarroako Gobernuan adostutako komunikazio eta koordinazio bideei eustea.	Nafarroako Gobernuarekin adostutako komunikazio bidea egotea		X					



II. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ARRETA INTEGRALA EMAKUMEEI ETA HAIEN SEME-ALABEL. ESPARRUA: JUSTIZIA.									
NEURRIAK ETA EKINTZAK	EKINTZAK, ZEHAZTUTA	ADIERAZLEAK	EXEKUZIO MAILA					AURREIKUSITAKO AURREKONTUA	BETEARAZITAKO AURREKONTUA
			HASIA	BUKATUA	HASI GABEA	ALDATUA	BAZTERTUA		
1. NEURRIA: Arreta juridiko espezializatua eta kalitatekoa.									
A.1. Aholkularitza juridikoan eta esku-hartze juridikoan hobetzeko elementuak txertatzea	A.1.1. Emakumeentzako Arreta Juridikoko Zerbitzuko (EAZ) orientabide juridikoarekin koordinatzea	Bilera kopurua		X					
	A.1.2. EAZko derrigorrezko prestakuntzan, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko aholkularitza.	EAZ eta NABiko kontaktu kopurua		X					



II. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ARRETA INTEGRALA EMAKUMEEI ETA HAIEN SEME-ALABEI. ESPARRUA: KALTEAREN ERREPARAZIOA.									
NEURRIAK ETA EKINTZAK	EKINTZAK, ZEHAZTUTA	ADIERAZLEAK	EXEKUZIO MAILA					AURREIKUSITAKO AURREKONTUA	BETEARAZITAKO AURREKONTUA
			HASIA	BUKATUA	HASI GABEA	ALDATUA	BAZTERTUA		
1. NEURRIA: Emakumeen erreparazioa eta oneratzea, eta indarkeria berriz ez gertatzea.									
A.2. Erreparaziorako eskubidearen alderdi kolektiboa gauzatzea	A.2.1 Adingabeei arreta emateko irizpide komunak ezartzea baliabide espezifikoean.	Irizpideak ezarrita		X					
	A.2.2. Bizirik atera diren emakumeei eragindako kaltea konpontzeko dirulaguntza berri bat ezartzea.	Proposamena eginda	X					40.000,00	726,00
	A.2.3 Lehenasunezko prozedurak ezartzea, harrera baliabideen emakume erabiltzaileek baliabide ekonomikoak, enplegua eta etxebizitza eskuratzeko.	Prozedurak ezarrita			X				

III. ARDATZ ESTRATEGIKOA: LANBIDE PRESTAKUNTZA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAK IDENTIFIKATZEKO ETA HAI EI AURRE EGITEKO. ESPARRUA: PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA.									
NEURRIAK ETA EKINTZAK	EKINTZAK, ZEHAZTUTA	ADIERAZLEAK	EXEKUZIO MAILA					AURREIKUSITAKO AURREKONTUA	BETEARAZITAKO AURREKONTUA
			HASIA	BUKATUA	HASI GABEA	ALDATUA	BAZTERTUA		
1. NEURRIA: Sentsibiltate pertsonaletik gaitasun profesionalera igarotzeko aukera emanen duten prestakuntza- eta ikaskuntza-baldintzak eta -ibilbideak diseinatzea, eta, haien bidez, profesional talde bakoitzaren araudi espezifikoa oinarrituta, beharrezkoak diren hitzarmenak eta akordioak sortzea.									
A.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Nafarroako prestakuntzako balibideen mapa egitea.	A.1.1. Arloek urteko txostenaren esparruan egiten duten prestakuntzari buruzko informazioa biltzeko tresnak berrikusten eta eguneratzen jarraitzea. - Prestakuntza ibilbideko jarduketak txertatzea.	Tresnak eguneratuta Jarduketak txertatuta		X					
A.2. Prestakuntza planak diseinatzea eta egitea.	A.2.1 Departamentuen arteko lankidetzak, jarduketa eremuen araberrako esku-hartzearen alorrean, "Genero-berdintasuna politika publikoetan aplikatzeko prestakuntza ibilbidea" pilotatzeko.	Egindako ekintzen kopurua Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua		X					
	A.2.2. Ekintza Plana duten departamentuetan, indarkeriaren arloko prestakuntza helburuak ezartzea.	Helburuak ezarrita		X					

	A.2.3. Baliabidea kontratatze-ko kaudimen teknikoko irizpide gisa eskatzen den prestakuntzaren jarraipena indartzea.	Egindako jarduketaren kopurua		X					
	A.2.4. NABIk profesionalentzat genero ikuspegiarekin antolatutako prestakuntza parte hartzen eta prestakuntza eskaintzen jarraitzea.	Egindako jarduketa kopurua Prestakuntzetako parte-hartzaile kopurua		X					
2. N. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko eta generoko prestakuntza indartzea, bai eta 14/2015 Legeak profesional guztientzat dituen inplikazioen ezagutza ere.									
A.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko gaitasun profesionala pixkanaka handitzea, horretarako etengabeko prestakuntza egokitua sustatuz.	A.1.1. Departamentu edo erakunde autonomo bakoitzean urtero prestatuko diren pertsonen kopurua eta haien profilak planifikatzen laguntzea.	Egindako jarduketa kopurua Prestakuntzetako parte-hartzaile kopurua		X					
	A.1.2. Ibilbideak jasotzen duen maila bakoitzean prestakuntza jasotako profesional kopuruaren jarraipena.	Egindako jarduketa kopurua		X					
A.2. Finantzaketa publikoa jasotzen duten erakunde eta antolakundeetan, berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza.	A.2.1 Kontratazio pleguetan sartzea emakumeen aurkako indarkeriaren arloan profesionalki esku hartuko duen edozein profesionalen izan behar duen gutxienezko derrigorrezko prestakuntzaren baldintzak	Baldintzak sartzen dituzten pleguen kopurua, eta egindako plegu guztien gaineko %a		X					

A.2.2. Genero-indarkeriaren alorreko profesionalen prestakuntza eskaintzen jarraitzea, harrera baliabideetako langileei zuzendua	Prestakuntza jardueraren egindakoa		X				4.000,00	800,00
A.2.3 Langile berriei harrera planetan zehaztuta dauden harrera baliabideei buruzko informazioa eman dakien sustatzea.	Harrera planetan ezarritako informazioa		X					
A.2.4. Emakumeen salerosketaren arloko prestakuntza, salerosketaren aurkako Nafarroako Foroan parte hartzen duten erakundeekin.	Egindako ekintzen kopurua			X				
A.2.6 Ziberindarkeriaren arloko prestakuntza.	Egindako ekintzen kopurua		X					
A.2.8. "Desgaitasuna eta genero-indarkeria" gaiari buruzko prestakuntza, harrera baliabideetako eta BAITetako profesionalentzat.	Prestakuntza jardueraren egindakoa	X						
A.2.9. Komunikabideentzako prestakuntza: "Genero ikuspegidun komunikazioa berdintasunezko gizarte baterako".	Prestakuntza jardueraren egindakoa		X				13.000,00	11.892,00
A.2.12 Ziberindarkeriei buruzko III. Jardunaldiak			X				15.000,00	7.630,75

	A.2.13 Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko prestakuntza, Justiziaren eremuko profesionalentzat			X					4.000,00	4.196,79
	A.2.14 Ezkontza behartuei buruzko prestakuntza, profesionali zuzendua			X					6.000,00	7.142,12
IV. ARDATZ ESTRATEGIKOA: 14/2015 FORU LEGEAK AURREIKUSITAKO ARLOETAN ESKUMENA DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA. ESPARRUA: KOORDINAZIO INSTITUZIONALA										
NEURRIAK ETA EKINTZAK	EKINTZAK, ZEHAZTUTA	ADIERAZLEAK	EXEKUZIO MAILA					AURREIKUSITAKO AURREKONTUA	BETEARAZITAKO AURREKONTUA	
			HASIA	BUKATUA	HASI GABEA	ALDATUA	BAZTERTUA			
1. NEURRIA: Esku-hartze koordinatua sustatzea, Nafarroako Gobernuaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan Nafarroan esku hartzen duten beste erakunde batzuen artean, Erakunde arteko Akordioaren esparruan.										
A.3. Batzorde Iraunkorraren, Jarraipen Batzordearen eta kasuan kasuko talde teknikoaren lana bultzatzea eta koordinatzea.	A.3.1 Indarkeriaren arloko lanarekin jarraitzea, Batzorde Iraunkorretik, Jarraipen Batzordetik eta lantaldeetatik abiatuta, eta hobekuntzak sartzea.	Egindako bilera kopurua, egindako lana eta balio erantsiaren analisisa		X						
	A.3.2. Justiziako Gizarte Zerbitzuarekin koordinatzea, biktimak egiaztatzeko.	Egindako bilera kopurua		X						
	A.3.3. Laguntza ekonomikoaren taldea sortzea	Sortutako taldea				X				

A.4. Urteko txostenak egitea eta hedatzea	A.4.1. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa hedatzea Erakunde arteko Akordioko talde teknikoei, Salerosketaren aurkako Nafarroako Foroari eta arlo horretako esku-hartzea hobetzea helburu duten beste lantalde batzuei.	Hedatutako jardueren kopurua eta mota		X					
	A.4.2. Berdintasunerako Plan Estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa egitea	Bai/Ez		X					
A.5. Nafarroako emakumeen mutilazio genitalari aurrea hartzeko eta aurre egiteko protokoloa bultzatzea eta haren jarraipena egitea.	A.5.1 EMG arloan lankidetzaz hitzarmena Munduko Medikuekin. Hitzarmena bultzatzea eta jarraipena egitea.	Hitzarmena sinatuta Egindako ekintza kopurua		X			85.000,00	73.090,18	
A.6. Erakunde arteko lankidetzaz protokolo zehatzak egitea eta jarraitzea	A.6.1 Erakunde arteko III. Akordioaren esparruan, jarduteko protokoloa bultzatzea eta hedatzea.	Hedatutako jardueren kopurua eta mota		X					
	A.6.2 Erakunde arteko III. Akordioaren esparruan antzemandako gorabeheren jarraipena egitea eta haiek konpontzea.	Konpondutako gorabeheren kopurua		X					
A.7. Tokiko esparruko koordinazio protokolo bat bultzatzea eta egitea	A.7.2 Tokiko koordinazio protokoloen jarraipena egitea	Bai/Ez		X					

A.8. Lankidetzako eta koordinazioko prozesuen ebaluazioa eta jarraipena	A.7.3. Jarduteko tokiko protokoloen edukiak eguneratzea.	Eguneraketa eginda			X				
	ALDATUA A.7.4 Koordinazioa Iruñeko Udalarekin, aisialdiko guneetan sexu-indarkeriaren aurkako protokoloa egiteko	Egindako bilera kopurua		X		X			
	A.8.1 Indarkeriaren ekintza plana egitea	X						18.000,00	
N2. Esku-hartze koordinatua sustatzea, Nafarroako Gobernuaren eta Foru Komunitatean sexu-esplotaziorako emakumeen salerosketaren arloan esku hartzen duten beste erakunde batzuen artean.									
A.1. 14/2015 Legea gauzatzeko beharrezkoak diren koordinazio sistemak egokitzea edo egitea	A.1.1. Sexu-esplotaziorako emakumeen salerosketaren aurkako foroaren eta talde teknikoaren lana bultzatzea eta koordinatzea.	Gauzaturako ekintzen kopurua		X					
	A.1.2. Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeekin koordinatzeko eta jarduteko protokoloaren jarraipena.	Foroaren eta talde teknikoaren bilera kopurua		X					
	A.1.4. Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeekin koordinatzeko eta jarduteko protokoloaren jarraipena.	“Protokoloko gorabehera kopurua Egindako urteko txostena”		X					
3. N. Estatuko Gobernuarekin lankidetzan aritzea, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, detekzioa eta arreta integrala hobetzeko.									

A.1. Estatuko Gobernuarekiko lankidetzaz ahalbidetzea. Horretarako, emakumei emandako arreta integrala, eraginkorra eta homogenea izateko beharrezkoak diren tresna guztiak koordinatzea eta lantzea.	A.1.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioarekin, detekzioarekin, arreta integralarekin eta koordinazio hobeararekin lotuta Estatuko Gobernuak antolatzen dituen bilera eta foro guztietan parte hartzea.	Parte hartutako bilera eta foro kopurua	X				1.500,00	1.367,65
	A.1.2. Estatuarekiko hitzarmenak berritzea, eguneratzea eta jarraitzea.	Egindako hitzarmen kopurua Jarraipen kopurua eta mota	X					
	A.1.3. Estatuko Gobernuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dion informazio guztia prestatzea, horrela emakumeen aurkako indarkeriaren arloko esku-hartzea hobetzeko.	Egindako dokumentu kopurua eta mota	X					
	A.1.4. Urtero eguneratzea baliabideei buruzko informazioa biltzeko tresnak, bi jomugatarako: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren webgunerako eta 016 telefonoaren bidezko aholkularitza zerbitzurako.	Tresnak eguneratuta	X					
	A.1.5. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako Estatu Ituna bultzatzearekin lotutako lantaldeetan parte hartzea	Egindako bilera kopurua	X				500,00	584,50



4.2.

GIZARTERATZE, ENPLEGU ETA



ETXEBIZITZAKO PLAN SEKTORIALA

GIZARTERATZE, ENPLEGU ETA ETXEBIZITZAKO PLAN SEKTORIALA 2023. URTEA									
I. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BALIOAK ALDATZEA ETA BALDINTZAK SORTZEA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZIMODURAKO. ESPARRUA: IKERKETA									
NEURRIAK ETA EKINTZAK	EKINTZAK, ZEHAZTUTA	ADIERAZLEAK	EXEKUZIO MAILA					HASIERAKO AURREKONTUA	BETEARAZITAKO AURREKONTUA
			ARIBIDEAN	BUKATUA	HASI GABEA	ALDATUA	BAZTERTUA		
1. NEURRIA: Ikerkuntza eta haren hedapena bultzatzea eta laguntzea.									
A.5. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen eta zerbitzuen mapa egitea.	A.5.1 Lankidetzaren NABirekin, 14/2015 Legeak jasotzen dituen indarkeria adierazpen berriak ezagutzen direla bermatzeko, eta sektoreko profesional guztiek indarkeriaren arloan dituzten baliabideak eta zerbitzuak ezagutzen direla bermatzeko. Estrategia horrek jasoko luke, orobat, sektoreko profesionalen prestakuntzarekin lotutako baliabideei buruzko informazioa.	Komunikazio estrategia bat egotea indarkeria adierazpen berriak ezagutzeko		X					
	A.5.3. Indarkeriaren alorreko baliabideen eta zerbitzuen mapa sektoreko profesionalen artean zabaltzea.	Profesionalen indarkeriaren arloko baliabideen eta zerbitzuen mapa ezagutu dezaten egin diren ekintzen kopurua eta mota		X					

3. N. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko aplikatutako neurrien eraginkortasuna eta inpaktua ebaluatzea.									
A.1. Baliabide eta zerbitzuen ebaluazioa	A.1.1 BAITen erabiltzaileen gogobetetzea kontrolatzea	Betetako galdetegi kopurua		X					
I. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BALIOAK ALDATZEA ETA BALDINTZAK SORTZEA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZIMODURAKO. ESPARRUA: PREBENTZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA									
NEURRIAK ETA EKINTZAK	EKINTZAK, ZEHAZTUTA	ADIERAZLEAK	EXEKUZIO MAILA					HASIERAKO AURREKONTUA	BETEARAZITAKO AURREKONTUA
			ARIBIDEAN	BUKATUA	HASI GABEA	ALDATUA	BAZTERTUA		
3. N. Emakumeen aurkako indarkeriari buruz gizartea sensibilizatzea, informatzea eta komunikatzea, eta komunikabideetan eta publizitatean sexismoa ezabatzea.									
A.1. Kanpaina instituzionalak eta informatzeko ekintzak egitea	A.1.1. NABIk diseinatutako sensibilizatzeko eta informatzeko ekintzak eta kanpaina instituzionalak hedatzen laguntzea	NABirekin batera egindako sensibilizatzeko eta informatzeko kanpainen eta ekintzen kopurua eta mota		X					

II. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ARRETA INTEGRALA EMAKUMEEI ETA HAIEN SEME-ALABEI. ESPARRUA: INDARKERIA ANTZEMATEA.									
NEURRIAK ETA EKINTZAK	EKINTZAK, ZEHAZTUTA	ADIERAZLEAK	EXEKUZIO MAILA					HASIERAKO AURREKONTUA	BETEARAZITAKO AURREKONTUA
			ARIBIDEAN	BUKATUA	HASI GABEA	ALDATUA	BAZTERTUA		
2. N. Gizarte zerbitzuen eremutik indarkeria kasuak detektatzen eta artatzen laguntzea.									
A.2. Emakumeen aurkako indarkeria gizarte babeseko gai gisa sartzeta eta sendotzea.	A.2.3 Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta BAITen arteko komunikazio kanal eraginkorrak izatea, azken horiek OGZetako profesionali aholkularitza eta laguntza teknikoa eman diezaieten, eta, aldi berean, bikoiztasunak saihestu daitezten eta koordinazio eraginkorra sortu dadin.	Ezarritako komunikazio kanal motak		X					
II. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ARRETA INTEGRALA EMAKUMEEI ETA HAIEN SEME-ALABEI. ESPARRUA: ARRETA ETA ONERATZEA.									
NEURRIAK ETA EKINTZAK	EKINTZAK, ZEHAZTUTA	ADIERAZLEAK	EXEKUZIO MAILA					HASIERAKO AURREKONTUA	BETEARAZITAKO AURREKONTUA
			ARIBIDEAN	BUKATUA	HASI GABEA	ALDATUA	BAZTERTUA		
1. NEURRIA: Zerbitzu eta baliabideen sare publikoaren bidez emakumeei eta zuzeneko beste biktima batzuei arreta integrala ematea.									
A.3. Sareko lana	A.3.1 Tokiko eremutik sareko lana sustatzea eta erraztea, prebentziorako eta indarkeria	Tokiko eremutik sareko lana sustatzeko eta errazteko egindako ekintza motak + OGZek		X					

	egoeran dauden emakumeei arreta emateko tokiko protokoloetan parte hartuz OGZek.	parte hartzen duten tokiko protokoloen ehunekoa							
2. N. Emakumeen ahalduntze pertsonala eta gizarteratzea bultzatzea, laneratzearen eta autonomia ekonomikoaren bidez eta etxebizitza izateko eskubidea bermatuz.									
A.1. Indarkeria egoeran dauden emakumeen laneratzea	A.1.12 Arreta proiektu indibidualizatua, indarkeria egoeran dauden emakumeei diagnostiko eta ibilbide pertsonalizatuak egiteko Iturrondo Zentrotik.	Egindako diagnostikoen kopurua Egindako ibilbideen kopurua		X					
	A.1.13. Hitzarmena Iruñeko Udalarekin, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarako Europako Funtsen inguruan, genero-indarkeriaren edo salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeentzako prestakuntza eta laneratze programetarako, kontratatze konpromisoarekin.	Artatutako emakumeen kopurua Laneratutako emakumeen kopurua		X				59.662,00	94.939,50
A.2. Kontratazioarako pizgarriak	A.2.1 Zailtasun bereziak (degaitasuna, bazterkeria, genero-indarkeria, etab.) dituzten taldeak kontratatze Nafarroako Gobernuak ematen dituen pizgarriei eustea, eta horretarako beharrezkoak diren tresnak sortzea.	Laguntzak jasotzen dituzten emakumeen kopurua, urtearen arabera. Kontratazioa sustatzeko helburua duten deialdien		X				20.000,00	7.800,00

		ehunekoak. Zailtasunak dituzten kolektibo guztiak antzeko zenbatekoa jasotzen dute							
	A.2.2 Genero-indarkeriaren biktimentzako dirulaguntzak, enplegu autonomoa sortzeko.	Emandako dirulaguntzen kopurua		X				50.000,00	31.500,00
A.3. Laguntza ekonomikoak	A.3.1 Gainera, 65 urtetik gorako emakumeentzako dirulaguntzak ematea, lan merkatuan sartu ezin direlako eta diru sarrera nahikorik ez dutelako.	Laguntzak finantzatzeko aurrekontuko partida bat egotea		X				125.000,00	5.838.516,87
A.4. Etxebizitza eskuratzea	A.4.1. Indarkeria pairatzen duten emakumeek etxebizitza eskuratzeko irizpideak txertatzea Etxebizitzaren Foru Lege berrian.	Alokairua eta erosketa esleitzeko erreserba betetzea, Etxebizitzari buruzko Foru Legeari jarraituz.	X					515.000,00	519.564,04
	A.4.4 Alokairuko etxebizitzak jabetzan dituzten partikularrei zuzendutako sentsibilizazio kanpainari eustea.	Egindako kanpainen kopurua, urtearen arabera	X						
	A.4.6 Salerosketaren biktimek lortu ahal izatea Etxebizitza Sozialerako Nafarroako Funtseko etxebizitzak.	Helburu horretarako utzitako etxebizitza kopurua		X					

